

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2011ko otsailaren 1a. VIII. urtea. 2.166. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Bihar hasiko dira Tolosako San Blas auzoko jaiak

Igandera bitarte trikitixa, bertsoak eta dantza izango dira; azken egunean Arzallus eta Mendiluze bertsolariak ere ariko dira ◯2

Mozorroak eta jai giroa izan da nagusi Areson asteburuan

Bukatu dira inauteriak; pasa den ostiraletik igandera bitarte ekitaldi ugari izan dituzte herrian, tartean guraso elkartekoek antolatutako danborrada ◯4



Ekitaldi ugari izan dira asteburuan Aresoko kaleetan zehar. I. GARCIA



SARA COMEZ

→ **Aizkora jaialdia Leitzaan.** Urrezko, Zilarrezko eta Gaztetxoeren mailetakoa jardunaldiak izan ziren herenegun Amazabalen; Arkaitz Olanok eta Asier Pellejerok ezin izan zuten garaipena lortu eta Eneko Saralegi leitzarrek eta Vicente lehengusuak aldiz, Kortxero-Larrea III.a bikoteari irabaztea lortu zuten. ◯7

Villabonako HEZKUNTZA PUBLIKOA

Euskalduna, Denona eta Denontzat
Proiektu bateratua, berritzailea, inguruan txertatua

Matrikulazio epea:

Urtarrilaren 31tik
Otsailaren 11ra

Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691 413
012277aa@hezkuntza.net

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Arratzainen (12-16 urte)
Tel./Faxa: 943 69 37 33
012952aa@hezkuntza.net

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Samanie O
www.samanieo.net
www.tolosakohezkuntza.net
www.ortre.net
www.ortre.net

- Maioresak (6-9 urte Plaza Berdea)
- Haur eta Lehen Hezkuntza (0-6 urte Sanantigoni)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Batzaragoak

Euskaratik eta Euskaraz

Matrikulazio epea: urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra



Amarozko dantzariak urtero parte hartzen dute San Blaseko festetan. HITZA

Bihar hasiko dira San Blaseko jaiak, urteroko egitarauari jarraituz

Txupinazoarekin hasiera emango zaie bihar, eta igandean amaitu bertsolari eta trikitilariekin

Erredakzioa Tolosa

Bihar emango zaie hasiera San Blas auzoko jaiak. Urteroko moduan, San Blaseko basilizaren inguruan ospatuko dira festak, eta hauen bereizgarri diren erroskiak ere ez dira faltako.

Emendek elkarteak antolatzaileek urteroko egitarauari jarraitu diote, eta bihartik hasi eta igandeararte luzatu dituzte jaiak. Horrela bada, toka txapelketa, dantzariak, trikitixa, San Blas Eguneko meza nagusia, txaranga, aizkolaria eta bertsolariak ere izango dira.

↓ Egitaraua

OTSAILAK 2, ASTEAZKENA

- **18:00etan.** Txupinazoa, festei hasiera emateko.
- **18:30etik 21:30era.** Disko Festa.

OTSAILAK 3, OSTEGUNA

- **11:00etan.** San Blas Eguneko meza nagusia, eta bertako produktuen bedeinakapena.
- **12:30ean.** Toka lehiaketa auzokoentzat eta Emendek elkarteentzat.
- **18:30etik 21:30era.** Trikitixa Elustondo anai-arrebekin.

OTSAILAK 5, LARUNBATA

- **12:00etan.** Haur eta gazte-txoentzako jolasak.

- **16:00etan.** Herrialde mailako toka lehiaketa.
- **18:30etik 21:30era.** Disko Festa.

OTSAILAK 6, IGANDEA

- **09:30ean.** Diana Konpenezinak txarangarekin.
- **11:00etan.** Meza auzoko eta elkarteko zenduen alde.
- **12:00etan.** Amaroazko dantzariak.
- **12:30ean.** Unai Otaño eta Iñaki Azurmendi aizkolaria.
- **13:00etan.** Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze bertsolariak. Zirikatzailea: Anjel Mari Peñagarikano.
- **18:00etan.** Bertsolarien bigarren saioa.
- **18:30etik 21:00etara.** Trikitixa Elustondo anai-arrebekin.

Errotako tabernaren ustiapena lehiaketara ateratu du udalak

Hasiera batean urte beterako esleipena egingo du udalak, baina epea luzatzerik izango da

Erredakzioa Tolosa

Urtarrilaren 21ean egindako Gobernu Batzarrean Baldintza Ple-guak onartu zituzten, eta honekin batera Errota eraikineko taberna-

ren ustiapena lehiaketara ateratzea erabaki du udalak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da iragarkia, eta eskaintza-aren bat egin nahi dutenek hamar lan eguneko epea izango dute euren proposamenak luzatzeko. Hasiera batean, urte beterako izango da esleipena, baina hiru urtez luzatu ahal izango da. Kontratuaren epea 2011ko martxoaren lehen hasiko da. Eskaintzak Tolosako Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, 09:00etatik 13:00etara bitartean, eta proposamenak eskuz nahiz bestelako baliabide informatikoak erabiliz ere egin ahal izango dira. Norbanako bakoitzak gehiezin ere proposamen bat egin ahal izango du, eta udalak eskaintza ekonomikoari eta ideia berriei begiratuko die.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ Laburrak

Laskorain ikastolaren informazio saioak

TOLOSA Laskorain ikastolak matrikula kanpainaren baitan bi informazio saio antolatu ditu. DBHko guraso eta ikasle berrientzat otsailaren 2an izango da bilera 18:00etan Usabalgongo liburutegian, eta Haur Hezkuntzako familia berriei zuzendurikoa, berriz, otsailaren 8an izango da, 18:00etan Usabalgongo Areto Nagusian.

Hirukide ikastetxean matrikula epea zabalik

TOLOSA Hirukide ikastetxeko haurreskolan eta oinarriko hezkuntzan matrikulatzeko epea zabalik da. DBHri buruzko bilera berriz, otsailaren 2an izango da, 18:00etan. Haurreskolako, oinarriko hezkuntzako edo DBHko informazioa lortzeko, deitu, hurrenez hurren, 943 67 39 48, 943 65 10 27 edo 943 67 03 11 telefonoetara.

Gaur du azken eguna erakusketa ibiltariak

LEITZA Hondakin elektriko eta elektronikokoak kudeatzearren beharra azaltzen du erakusketa, eta herritarrek horren inguruan sentsibilizatzea du helburu. Izan ere, hondakin mota hauek eta euren kutsagarriak arriskuan jarriko dute ingurumena eta baita guztion osasuna ere. Gaur izango da azkeneko ikusgai Leitza, 09:00etatik 14:00etara bitarte, herriko plazan.

Santa Ageda bezperan kantatzeko deialdia

IBARRA Santa Ageda bezperan kantatzen ateratzeko entseguak antolatu dituzte Hauspoa elkarteok. Bihar eta etzi izango dira 20:00etan Alurr-en bulegoan. Ostiralean bertan, berriz, 17:45ean bilduko dira Izaskunera autoz igotzeko. Dena den, Izaskunera zuzenean izango nahi dutenek 18:15erako Izaskungo jatetxearen parera azaldu beharko dutela jakinarazi dute.

Bi etxebizitza salgai, enkante publiko bidez

Interesatuak otsailaren 18a baino lehen egin beharko dituzte proposamen ekonomikoak

Erredakzioa Tolosa

Tolosako erdigunean bi etxebizitza enkantera ateratu dira. Salmen-ta enkante publiko bidez burutuko da, eta trukean jasotako dirua Voith Gorostidi eremuko lehenengo lursaileko bost etxebizitzetara zenbaterako ordaintzeko erabiliko du udalak. Bazez ofizialeko etxebizitza hauek larrialdietarako, beharra dutenei ostatu emateko eta beste hainbat gizarte gaietarako erabiliko ditu Tolosa-ko Udalak.

Enkantera aterako diren bi etxebizitzetako bat Inperu kaleko lehendabiziko zenbakiko lehenengo solairuan dago, udalaren esku dagoelarik etxe honen kudeaketa. Bestea berriz, Plaza Berriko lehendabiziko zenbakian dago, hau ere lehenengo solairuan, eta Erretengibel S.A.-k kudeatuko du.

Etxebizitzaren ezaugarriak

Inperu kaleko etxebizitza 52,18 metro karratuko azalera du, eta

sukaldea, egongela, bi logela eta bainugela ditu. Etxebizitza honen enkantean parte hartu nahi duen orok otsailaren 18a baino lehen aurkeztu beharko du proposamen ekonomiko bat. Eskaintza bi kartazal itxitan egin beharko da: lehenengoan administratzaileko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, eta bigarrenengoan, berriz, proposamen ekonomiko; bi gutunazalake udaletxean utzi beharko dira. Aipatzekoa da, enkantera ateratzeko hasierako prezioa 175.000 eurotako dela.

Plaza Berriko etxebizitzari dagokionez, 65,50 metro karratuko azalera du. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela, bainugela eta 14 metro karratuko trastelekua ditu. Etxebizitza erosteko interesa duten guztiek 30 egun dituzte eskaintza burutzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean berria argitaratzen den unetik aurrera. Hemen ere, eskaintza bi kartazal egin beharko da. Hasiarako prezioa 210.000 eurotako izango da kasu honetan.

Azkenik, enkantean parte hartzeko asmoa duen edonork etxebizitzetako bat barnealdetik ikusi nahi izaneko gero, 943 69 74 91 telefonora deitu eta aukera izango du otsailaren 18a bitarte.

**Editoriala****Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua**

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorra. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela.

Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabide desberdinak, 2008. urteko Eusko Jauritarizaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokalitik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna.

Harro gaude egindako bide horrekin, pozik egiten dugunarekin, euskal kulturaren isla eta hauspo gara, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu. Albitsea eta informazioaren haririk, entretenimendutik, gertukotik, sakonetik, zientziatik...

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Hitzun komunitateak bere burua euskaraz islatua ikusteko eskubideaz ari gara, beharraz, nahiaz.

Edozelako gizarte modernoan orainean, edozein kulturaren geroan, giltzarri da hedabideen zeregina. Ez da hau

ukatuko duenik eta hala ebazten da behin eta berriz erakunde publiko eta alderdi politiko gehienek euskarari buruzko gogoeta eta plan estrategikoei. Printzipio eta helburutan letra larriz aitortzen dute garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez.

Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundeen sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez da nahikoa, aurrean ditugun eronkei begira eusteko adina-koa ez bederen.

Euskarazko hedabideok ohi-tuta gaude zailtasunean jarduten, gure hizkuntzaren izaera ez normalizatuak horretara bultzatzen gaitu, eta agian horrek ere laguntzen digu bizi dugun krisiari aurre egiten. Baina egoera gorria da eta hainbatetan larria. Hedabide ugari ari dira ixten munduan, hedabide historikoak, ospetsuak, gurean aldean handi eta indartsuak...

Eta gure enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, gure ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiatuta zaigu diru publikotik bizi gara, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortze-

raino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilerio soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarritz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Eta instituzioen konpromiso sendoagoa ere egunerokoan ikusi nahi dugu. Herri erakunde publikoen sostengu eta babes handiagoa aldarrikatzea gatzog.

Gure gizartearen garapena ezin delako porlana eta azpiegitura handien garapenari lotu. Adibidez, Euskal Y tren proiektuaren kilometro bakar batek, erakunde publikoetatik euskarazko hedabide ez publiko guztietara lau urtetan bideratzen dena balio du.

Errepide, trenbide edo erakunde publikoak erabiltzeko gure etorkizuna berma dezake.

Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustu egitea eta euskal kulturak ere bai.

■TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK EZ EZIK, EDITORIAL BATERATU HAU 63 KOMUNIKABIDEK ARGITARATU DUTE.

Arrautza

**Bioaniztasunetik Jon Ander Galarraga**

Biologoa

Askotan, gertuen ditugun objektuei ez diogu behar bezalako arreta ipintzen. Baina une batez ohikoak diren objektuak aztertzen saiatzen bagara, ohikoa ezohiko bihurtzen zaigu. Bide horretatik doa gaurko zutabetxo, oso gertu dugun objektu harrigarri eta miresgarri bati buruz. Ziur hozkailuan objektu horren dozena bat edukiko duzula eta ez zeniela behar bezalako arretarik eman, gaurko zutabetxo ezagun eta aldi berean ezezagun diren arrautzei buruzkoa da.

Lehenik eta behin esan, arrautza mota ugari daudela eta zutabe hau soilik hegaztien arrautzei buruz izango dela, hauek baitira gure hozkailuan daudenak. Oraindik behintzat gure amak ez du musker arrautzarik frijitu gurean! Zorionez.

Arrautza, oraindik jaio ez den txitatxoaz hazteko espazio bikaina da: beroa, goxoa, elikagaiez bete eta erresistentzia handikoa. Zu eta ni ere honela hazi ginen, baina arrautza batean egon beharrean geure amaren barruan egon ginen, berari nolabait janaria plazentaren bidez "lapurtuz". Txitatxo ordea ez dago amaren barruan, bere odolaren kontaktuzuzenean eta ezin dizkio elikagaiak "lapurtu", beraz, arrautzak bere barruan elikagai erreserba

handia eduki behar du txita bere hazkuntzan gosez hil ez dadin. Horregatik dira arrautza frijituak elikagaietan hain aberatsak!

Txitatxo ederki babestua dago arrautzaren kaltziozko kanpo oskolaz. Oskol honek, ingurune latz eta lehorretik isolatu egiten du txita, orain milioika urte lurtarrak ziren animaliei beraien kumeak lur lehorrean haztea ahalbidetu zien oskol honek, honela, urarekiko dependentzia murriztu (kumeak izatera ez zeukaten uretara joan beharrik) eta lur lehorra konkistatuz. Arrautza izan zen lur lehorrean konkistarako ezinbesteko elementuetako bat. Gaur egungo hegaztien arrautza, narrastien ahaide arrunek (krokodilo, dinosauro...) "asmatu" zuten eta narrasti hauen ondorengo zuzenak dira hegaztiak. Milioika urteren ostean arrautza mota ugari garatu ziren, ostrukaren arrautza erraldioetatik hasi eta txepetxaren arrautzaxtoetaraino. Arrautzak zurixkak izan ohi diren arren, zenbait arrautzak kamuflajea izan ohi dute, batez ere lurrean gainean habia egiten duten hegaztietan, galeperraren arrautza pintarratuak adibidez.

Bukatzeko arrautzen munduko xelebrekeria batzuk. Ba al zenekien badaudela Ozeania aldean ugaztun batzuk (zu eta ni bezalakoak) arrautzak ipintzen "ikasi" zutenak? Eta ba al zenekien zenbait sugeek ez dituztela arrautzak erruten eta gorputz barnean eramaten dituztela kumeak jaio arte? Gaur hozkailua irekitzerakoan, begiratuz zeunon arrautzak! <http://bioaniztasunetik.blogspot.com>, bioaniztasunetik@hotmail.com eta Facebook-en ere bai!

**Gutuna****Hau ez da modu egokia Ostaturko kudeaketa egiteko**

Leaburu-Txaramako Udaleko egoera politiko eta administratiboak oso larriak dira.

- Jose Martin Deusto Iturri zinegotzia inputatuta dago idazkariari lan eraso burutzegatik.

- Prebarizazioaz hartu dituzte herriko Ostaturko kudeaketako erabakiak, nahiz eta udaleko idazkariak ohararazi zien gehiengo absolutua behar zela.

- Nahiz eta ezker abertzaleak 2007ko udal hauteskundeak irabazi, PPEk eta PSOEek bermatutako alderdien legeaz baliatuaz Bide Berriak-eko kideek hartu zuten udala.

- Herri batzarrak oso gutxi egin dituzte, egun batetik bestera iragarriaz eta batzarrak eguerdian jarriaz herritar gutxiago azaltzeko asmatan.

- Herritarrenganako informazio gabezi handia erakutsi dute.

- Udal terrenoak erabili dituzte zinegotzien senideak administrazio baimenik eskatu gabe. Zenbait obra ere egin dituzte, non, udal lurak erabiltzea iritsi diren zinegotzien senideak.

Aurrez aipatutako gaiez gain puntu gehiagorekin ere jarrai genezake eta konparaketa garbia egin Euskal Herriko beste hainbat usteldutako udalekin. Leaburu udaleko oraingo osaketa seguruenik bertako zereñdeta sartzeko moduan egongo litzateke. Baina une honetako egoera larriena pasa den astean burutu zuten. Alderdi guztiek, sindikatuek eta euskaldun gehiengoak, alderdien legea PSOE eta PPEk egina izan zela diote, ezker abertzalea baztertzeko eta euren instituzioak lapurtzeko. Modu horretan Alderdien Legea probestuz Bide Berriak-eko zinegotziak euren kide bati eman behar die

lekua zinegotzi moduan, Manuel Enrique Gregorio izango da. Euren helburu bakarra momentuz Ostaturko kudeaketa kontratua onartzean datza. Urtebete baino gehiagoz itxita eduki dute eta zein asmorekin dabilta orain?

Guretzako garbi dago, interes pertsonalak dituela korporazio honek, gainera esan behar dugu, Manuel Enrique Gregorio, Deusto zinegotziaren koinatua eta Etxezarreta zinegotziaren lehengusua dela.

Bestalde Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak hau ere salatzen dute:

- Udalaren erabilpen desegokia Bide Berriak-eko kideen alzele diote, ezker abertzalea baztertzeko eta euren instituzioak lapurtzeko. Modu horretan Alderdien Legea probestuz Bide Berriak-eko zinegotziak euren kide bati eman behar die

dugu nahi, baina legearen barruan burutu behar dira Ostaturko kudeaketak, badaude beste bide legalak hori burutzeko, baina ez herriak aukeratu ez duen gizona laugarren zinegotzi moduan jarriaz.

- Deusto Iturriren eta Mari Cruz Aguirereren dimisioa eskatzen dugu. Lehenbizikoa inputatuta dagoelako Leaburu Idazkariari lan erasotzegatik, eta alkatearen dimisioa nahi dugu, aurrera bidea eman dielako Deusto Iturri burututakoei bere sinadura eta babesa emateagatik.

- Bukatzeko esan nahi dugu beste udalari batzuetan, Zaldibian adibidez, 2007ko hauteskundeetan ateratakoak errespetatuz eta borondatea azalduaz gestora bat osatu zutela Gipuzkoako diputazioaren eskutik, eta bide horretan ere Leaburu Txaraman borondatea balego posible izango litzatekeela.

■ Leaburu-Txaramako ezker abertzalea.**Villabonako Kultur Astea**

Jesusen Bihotza Ikastolako Kultur Astea amaitu berri den honetan, eskerrak eman nahi dizkizuegu eta batera edo beste parte hartu duzen guztioi; bai antolakuntza lanetan aritu zareneki, baita azpiegiturak sustatu dituzuenek ere. Espresuki aipatu nahi ditugu: Guraso Junta, Ibaizte eta Zurbeltz elkarteak, La Caixa entitateak, Shepherd's garagardotegia, Aulas Kutxa, Tolosako Usabal kiroldegia, Mikel erlezaina, Galder eta Aintzane eskalatzaleak, Olaederra kiroldegia eta Villabonako Udala. Datozen edizioetan ere lagun izango zaituztelakoan, jaso eza zure eskerrik beroena!

■ Kontxi Ormazabal, Jesusen Bihotza Ikastolako zuzendaria.

Tolosa ◦ Azpiegiturak



ZULOAGAN IGOGAILUA

Tolosako Zuloaga auzoan iragarratasun baldintzak hobetzeko helburuz igogailua eraiki da eta larunbatean inauguratu zuten. Ekitaldian auzokide ugari eta hainbat udal ordezkari izan ziren. Zinta mozketan bizi lagunak eta Jokin Bildarratz alkateak egin zuten. Ondoren, auzokideek prestatutako hamaketakoa hartu zuten. SARA GARCIA

Areso ◦ Inauteriak



INAUTERIZALEEK HERRIA ALAITU DUTE

Asteburuan ospatu dituzte Areson inauteriak. Ostraletik igandera hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Larunbatean, esaterako, kalejira egin zuten herritarrek mozoerrotuta. Besteak beste, guraso elkarrekoek danborrada antolatu zuten baserritarrez jantzita eta eskerrak luatu, dizkiote «Urkiolako Joxe Mari», emtegiak egiten lagundu eta kalejira danborrada zuzendu duela. Igandean, eskean aritu ondoren, bertso bazkaria egin zuten eta arratsaldean haurrentzako kuskuzina izan zuten. SARA GARCIA

Iragarki laburrak

SALGAI

• **Motorra.** Suzuki RMZ 450 motorra salgai. 2006 urtekoa eta egote oso onean. Interekatuek deitu 635 75 09 15 telefono zenbakira.

ALOKAIRUA

• **Ileapaindegia.** Alegian, ileapaindegi bat alokatzen da. Interekatuek deitu 665 708 208 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

• **Betaurrekoak eta kamisetak.** Ikaztegiatara udaltek ean, kalean aurkitutako betaurreko beltzak eta bi kamiseta daude. Jabea udaltekik pasa dateke.

PETRO MONTANO HERRI ESKOLA
 Fogarito auzoa, 16 - BIZKAI
 48.401.001.019
 Posta elektronikoa: OTD@egpnetbuzka.net
 Aurreematrikulazioa:
 Urtarrilak 31tik Otsailak 11 arte

LAGUN ARO GBC
 Menorca Basquet
 saskibaloia partida
 Otsailak 6 - Igandea
 12:30ean
 Donostiako Iurretan
 sarrerak eskuzatze deitu: **943-65 56 95** telefono zenbakira

Tolosa ◦ Politika



EZKER ABERTZALEA ETA EA-REN ARTEKO AKORDIOA

Tolosaldeko ezker abertzaleak eta EAK Gipuzkoan fortu arteko akordioaren aurkezpen publikoa egin zuten Tolosako Topic zentzuan larunbatean. Ezker abertzalearen ordezkari bezala Antton Izagire izan zen eta EAren aldeko Onintza Lasak parte hartu zuten. Topic-en areto

nagusia ia guztiz bete zen ekitaldirako. Antolatzaileek aurkezpen parte-hartzailea egitea bultzatu dute eta ekitaldiaren hasieran bai Lasak eta bai Izagirek balak-trak bere alderdia akordio hori gauzatzera nola iritsi zirena azaldu zuten. Ondoren, aretoan elkartu ziren herri-

tarrek parte hartu ahal izan zuten. Bi alderdien arteko akordioaren berri eman aurretik, Zerkausaren inguruan bai ezker abertzaleak eta bai EAK sinatutako Gernikako Akordioaren inguruko informazioa zabaldu zuten goizean zehar. SARA GARCIA

Tolosa ◦ Politika



ODRIOZOLAK 23 URTE KARTZELAN

300 lagun inguruko manifestazioa egin zuten larunbatean Tolosako kaleetan zehar. Pello Odrizola preso tolosarra askatzeko aldarrikatuz. **Ezki osorako zigorrik ez, Pello askatu!** lelopean egin zuten manifestazioa. Ostralean 23 urte bete zituen Odrizolak espetxean eta hori salatzeke egin zuten protesta. SARA GARCIA

Amasa-Villabona ◦ Kultura



ANTZERKIZALETASUNARI BIDE

Amasa-Villabonako Udalak, herritarrek eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartek elkarrekin antzerkiak antolatuko dituzte. Lehen antzerkiak antzerki taldearen obra, larunbatean Ainhoa Alberdiren antzerki talerra eta igandean Deja Bu paupirin laborategiaren Azken portua antzezlan (argazkia) izan ziren. SARA GARCIA

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta** du
LAGUN ARO GBC
 Menorca Basquet
 saskibaloia partida
 Otsailak 6 - Igandea
 12:30ean
 Donostiako Iurretan
 sarrerak eskuzatze deitu: **943-65 56 95** telefono zenbakira

Kirolak**↓ Emaitzak****PILOTA**

BINAKAKO TXAPELKETA	
Lehen maila	
Gonzalez-Laskurain	22
Bengoetxea VI-Patxi Ruiz	7

Titin III-Paskual	22
Olaizola I-Beloki	20

Olaizola II-Begino	22
Xala-Barriola	19

Bigarren maila	
Jaunarena-Arruti	18
Olaetxea-Albisu	22

EUSKADIKO TXAPELKETA	
Mundarro	22
Labaka-Barandiaran (A-S)	14

Atxarte	14
Sukia-Otaegi (A-S)	22

Zaramaga	22
I. Urbieta-Biain (A-S)	10

Arkupe	11
X. Urbieta-Zubiri (A-S)	22

Adiskide	22
Narbate-Telletxea (A-S)	14

Gazteleku	18
Mujika (Aurrera Saiaz)	8

Artza	22
Zelaia (Aurrera Saiaz)	8

Txaruta	22
Mujika (Aurrera-Saiaz)	4

Agurain	22
Perez (Aurrera-Saiaz)	12

Paz Ziganda	10
Quina (Aurrera Saiaz)	22

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA	
Hamabosgarren jardunaldia	
Take Bide Bide Ibiza	84
Goierri Verkol	79

Sailkapena

1. Fundacion Baskonia (12-3)
2. Lizuan.com (10-5)
3. Goierri (9-5)
7. Bide Bide Ibiza (6-9).

FUTBOLA**ERREGIONAL OHOREZKO MAILA**

20. jardunaldia	
Tolosa	1
Bergara	0

Sailkapena

1. Hernani (45 puntu)
2. Pasajes (43 puntu)
3. Anaitasuna (41 puntu)
8. Tolosa (29 puntu)

ERREGIONAL PREFERENTEA

18. jardunaldia	
Getaria	1
Tolosa 'B'	0
Zestoa	2
Intxurre	2

SOKATIRA**EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA****Gizonezkoak, 640 kilotan bigarren jardunaldia**

1. Abadiño
2. Ibarra
3. Sokarri
4. Berriozar
5. Amaiur
6. Napurrak
7. Basaburua-Imotz
8. Zuraide
9. 6 conceyos

Emakumezkoak, 540 kilotan bigarren jardunaldia

1. Badaiotz
2. Sakana
3. Ibarra
*Gizonen eta emakumeen azken jardunaldia, 640/540 kilotan otsailaren 5ean, larunbatean, jokatu da Zeberion (Bizkaia).



Ibarrako bi taldeek emaitza desberdinak lortu zituzten. A. IMAZ

Sokatira Ibarrara itzuli da

Asier Imaz Euskal Herriko Txapelketa

Ibarrako Belabieta pilotalekua jendez bete zen larunbatean. Bertan, Euskal Herriko Goma Gaine-ko Sokatira Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu zen. Gizonezkoak 640 kilotan aritu ziren eta emakumezkoak 540 kilotan.

Azken jardunaldia eta finala

Hiru talde ari dira lehia 540 kilokoan. Ibarrakoa bigarren jardunaldia izan zen eta hirugarrena, Zeberion jokatu dute otsailaren 5ean. Belabietan etxeko taldea hirugarren gelditu zen, Badaiotz eta Sakanaren atzetik.

Gizonezkoetan ere bigarren

jardunaldia jokatu zen Ibarran. Bederatzi taldek parte hartu zuten eta hauetatik sei pasa ziren finalera. Ibarrak azken lehiarako txartela lehen jardunaldian irabazi zuen, baina hala eta guztiz ere, larunbatean, bigarren gelditu zen. Finala otsailaren 5ean jokatu dute.

Rojo anaiak eta Adur Etxezarreta probarik proba dabilta

Erredakzioa Eskia

Rojo anaien eski egutegiak ez du etenik. Tolosarrak Espainiako selekzioarekin ari dira lehia Euskal Herriko kanpo eta Suitzan (Campra) eta Alemanian aritu ondoren, mundu mailako txapelketa jokatzeko ari dira asteburu honetan Estonian, 23 urte azpiko mailan. Joseba eta Imanol Rojo Alpino Uzturreko kideen be-

rotasunarekin ari dira lehia. Emaitzei dagokionez, ostegunean Joseba Rojok 45. postuan amaitu zuen eta Imanol Rojok 56. goan.

Adur Etxezarreta, txapeldun

Iragan astean Espainiako Kopako probak jokatu ziren Sierra Nevada. Aresoko Adur Etxezarreta bertan egon zen. 14 urteko eskiazaileak Erraldoian garaipena

lortu zuen infantiletan. Nafarroatik 18 eskiazaile joan ziren eta Etxezarretaren garaipenak zeresana eman zuen. Erraldoi proban bi txanda jokatu ziren eta aresorak biak irabazi zituen «erraztasunez».

Infantilen mailako hurrengo proba otsailaren 18tik 20ra jokatu da. Oraingo honetan ordea, eskiazaileak Baqueira Bereteko pistetan ariko dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

<p>HILETAREN BALIOA Txina Inperiala</p>	<p>Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko gutxiatara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.</p>	<p>FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK</p> <p>902 402 900</p> <p>www.funerariavascongada.com</p>
	<p>Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.</p>	

Paco Sanchez Memoriala

Erredakzioa Igeriketa

Tolosako Usabal kiroldegian XI. Paco Sanchez Memoriala jokatu berri da. Bertan 220 haur elkartu ziren, 8-12 urte bitartekoak. Har-

mailak ere leporaino bete ziren, Tolosaldea IKT, Fortuna, Ordizia eta Zarautz taldeko igerilariak ikusteko. Tolosaldea IKT-ko arduradunen esanetan, antolakuntza «oso ona» izan zen, batez ere,

«boluntario eta gurasoei esker». Emaitzei dagokienez, eskualdeko igerilarien erdiak lortu zuen podium-era igotzea. Emaitza eta giroarekin gustura, denak zoriondu dituzte IKTetik.



Tolosaldea IKTko igerilariak Paco Sanchezen omenezko proban. HITZA



Larretxea aita semeak Leitzako Amazabal pilotalekuan, herenegun. S. GOMEZ

Amazabalen hiru aizkora proba jokatu dira

Arkaitz Olanok eta Asier Pellejerok galdu egin dute; Eneko Saralegik, aldiz, garaipena lortu du

A. Imaz Aizkora

Leitzako Amazabal pilotalekuan aizkora jaialdia ospatu zen herenegun. Hiru mailatako lehiak jokatu ziren bertan.

Urrezko Mailan, Donato Larretxeak eta Oihan Larretxeak finalerdietarako txartela lortu zuten. Juan Jose Lopez Azpilikueteri eta Ander Erasuni ia minutu bateko aldea atera zien. Azken hauek, oraindik finalerdietara sartzeko aukera dute. Horretarako, Azurmendi-Atutxa II.a eta Arria V.a Rekondo izango dituzte aurkari. Zilarrezko Mailan ere finaler-

dietarako txartela zegoen jokoan Amazabalen. Alde batetik, etxeko bi aizkolari aurkitzen ziren, Arkaitz Olano leitzarra eta Asier Pellejero aresoarra. Bestetik, Segobiako Rodriguez I.a eta Rodriguez II.a. Eskualdekoek lanak amaitzeko 13:34 segundo behar izan zituzten. Aurkariak ordea, ordularia 12:32an gelditu zuten eta ondorioz, finalerdietan egongo dira Rodrigueztarrak.

Aizkora jaialdiko azken proba, Gaztetxoan Mailakoa izan zen. Bikote batean Eneko Saralegi gazte leitzarra aurkitzen zen, bere lehengusuarekin bikotea osatuz. Saralegi-Vicenteren aurkariak aldiz, Kortxero-Larrea III.a ziren. Orain arteko ibilbideari jarraituz, leitzarrak eta otxagabiarrak lortu zuten garaipena. Lanak amaitu ostean irabazleek 8:36ko denbora egin zuten eta galtzaileek 9:36koa.



Gernikako taldeak irabazi zion Tolosari Hiru Erregeen Mahaia Trindoor Txapelketaren jardunaldia. HITZA

Gernikaren aurrean ezin

Erredakzioa Tolosa

Bizkaitarrak eta gipuzkoarrak beste behin aurrez aurre Euskadi Irratiko Hiru Erregeen Mahaia Trindoor Txapelketan, eta beste behin bizkaitarrak aurrera. Tolosari Gernikak irabazi baitzion.

Bi taldeek maila bikaina eman zuten larunbatean. Tolosak ekin zion saioari, zozketan hala egokitu-ta. Iaz, Lauko Finala jokatu eta hirugarren amaitu zuten Txapelketa. Izaskun Atorrasagastik arraunean bere marketan jarraitu zuten, 750 metroak hiru minu-

tuan eginda. Itsaso Leundak hartu zuen erreleboa bizikletan, eta 4 kilometroak 5:51n egin zituen. Azken saioa, Amaia Arbillagaren korrikakoa, oso ona izan zen: 1500 metroak 5:46an amaituz. Amaieran, 14:38ko denbora egin zuten. Gernikak aldiz 14:26koa.

hitza bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Asteegunetan 09:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 beheko • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 21690 Leizua

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Aberriaren 15ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalari Babesteko, betetik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSAN HERRIA HEDABIDEAK S.M.-en fitxategi informatiboan batera postutik direla, erreakzio dituen erabiltzaile berri emateko. Zure esku dago kusketu, zuzentzeko, esortzeko eta kontrolatu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi behido honetara: TOLOSAN HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba etorbidea 5 beheko • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info

ATE IREKIAK

Goierriko campusa
INGENIARITZA

ORDIZIA OTSAILAK 3 osteguna, 17-30

ARRETO NAGUSIAN Etorri aurretik izena emari!

902 110 436 www.mondragon.es/abrir/



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	8°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

■ **Villabona.** Bihar, hilak 2
19:00etan Mintzola etxean Euskal Herrian Euskaraz elkartearen ibilbidearen inguruko dokumentala eta solasaldia.

EHEK 30 urte bete zituen iaz eta urteurren honen harira iaz aurkeztutako *Izan, egin, eragin EHE* izeneko dokumentala ikusi ahal izango da Mintzolan. Ondoren solasaldia egingo dute Karmele Ayerberekin eta Villabonako EHEko kidea den Xabat Laborerekin.

■ **Tolosa.** AHT Gelditu! Elkarnak Hernialde-Zizurkil zatian sondeoak egiteko desjabetze prozesua abian jarri dutela salatu du. Era berean, Tolosa-Hernialde eta Andoain-Urnieta zatien akten altxamenduak egitekoan elkarretaratzeak egingo dituzte: gaur 08:30ean Tolosa-ko udaletxe aurrean, eta etzi, hilak 3, 08:30ean Ibarren eta 11:00etan Hernialden.

■ **Anoeta.** Ritxi Lizartzak hitano ikastaroa eskainiko du otsailetik apiril bitarte. Ikastaroa doan izango da, baina materialak 30 euro balio du. Izena emateko epea bihar amaituko da eta udaletxean egin daiteke Euskara Zerbitzura azalduz astelehen, asteazken eta ostiralean edo 943 65 12 00 telefonora deituz.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



IKASLEEK ONGARRIA BOTA DIOTE BAKEARI

Hirukideko kideek, hainbat tolosarren laguntzarekin, Bake Eguna ospatu zuten pasa den ostiralean Trianguloa plazan. Eskolako ikasle nahiz irakasleak hainbat tokitatik iritsi ziren Trianguloara eta modu bitxian egin zuten gainera: bidean ongarrria eta ura jaso zituzten, ondoren Trianguloan «zuhaitzaren inguruko sinbolo bat osatzeko».

«Bertara eraman dugun zuhaitzari ongarrria bota eta ureztatu ondoren, fruitua jaso dugu. Honez gain, bakearen aldeko manifestu bat irakurri dugu», argitu dute Hirukideko arduradunek. Ekitaldi honekin eman zuten bukatutzat Bake Astea, nahiz eta eskolako txikienek arratsaldean eskolan bertan ere egin zuten beste ekitaldi bat. A. IMAZ

Agurrak



Nahia Ortiz Vicente (Larraul).
Gaur 5 urte. Zorioanak sorgintxo, etxekoen eta bereziki aita, ama eta zure anai Inharren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak



**PILAR GOYA
ESTETIKA ZENTROA**



Errota 2, behea • Villabona
Tel.: 943 69 13 66

- Diodo laserra (gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat)
- Aurpegi-tratamenduak
- Zimurren betegarri-tratamendua ama zelulekin:
- Urrezko xafak
- Azalaren aholkularitza doan
- Oinen eta eskuen tratamendu eta edertasuna (irraupen luzeko esmalteak)
- Solarium bertikala, 10 minutu
- Solarium horizontala, 20 minutu
- Bainuen aurrekontua eskatu
- Depilazioa erabilera bakarrek argizariarekin